

- **Sexting** *Sexting-a* da telefono mugikorren bidez beste pertsona batzuei eduki sexualak bidaltzea, argazkiak edo bideoak, normalean bidaltzen dituen pertsonak ekoitziak. Ekintza horiek harreman afektiboa edo sexuala duten edo izan duten pertsonen artean izaten dira; harreman hori esfera intimoari zuzenean edo zeharka lotutako motiboengatik sortzen da. Sexting bidez bidalitako eduki horiek baimenik gabe argitaratu eta/edo zabaltzen direnean, Zigor Kodearen 197. artikuluan jaso den delituaz ari gara, nahiz eta bertan izendapen zehatz hori ez izan.
- **Sextortsioa**. Termino honek xantaia bidezko sexu-esplotazioaren modu bati egiten dio erreferentzia; xantaiarako sexting bidez edo webcam bidez biktimarengandik zerbait eskuratzeko lortutako sexu-edukiak erabiltzen ditu baten batek eta horiek argitaratzeko mehatxua egiten du.
- **Grooming edo child-grooming**. Ekintza hau helduek gauzatzen dute, nagusiki gizonek, Internet bidez adingabeekin adiskidetasun-loturak ezartzeko. Limurtzeko estrategia baliatzen dute, harreman horiek bilatzen dituztenen identitatea ezkutuan gordetzen da eta gazteak edo neskak direla esan ohi dute eta, ondoren, harreman hori adingabeen irudi edo bideo erotiko-pornografikoen bitartez sexu-gogobetetasuna eskuratzeko modu edota sexu-topaketarako prestatzeko modu bilakatzen da.
- **Revenge porn**. Interneten sexu-edukia argitaratzea da, biktimaren informazio pertsonalarekin batera, nagusiki emakumeen informazioarekin. Bikote-harremana amaitu ondoren gertatzen da, normalean mutilak berarekin ez jarraitzeagatik baliatutako mendeku gisa, baina sexu-edukia bidegabe jaso duten ezezagunek ere egin dezakete.